

# GINARRIAK

Legazpiko Arkatza Elkarreak ondorengo oinarri hauen arabera **Gabon Irudi lehiaketarako** deia egiten du.

## 1. PARTAIDEAK

**Legazpiko Lehen Hezkuntzako ikasleak** parte hartu ahal izango dute. Sei maila bereziko dira, kurtso bakoitzeko bat.

## 2. GAIA:

Gaia **GABONAK** izango da maila guztietarako.

## 3. AURKEZTEA

Lanak egilea nor den adieraz dezakeen inolako daturik gabe aurkeztuko dira. Atzeko aldean lanaren lema edo zenbakia adierazi beharko da. Lanarekin batera eta kartazal itxi batean egilearen datu guztiak, telefono zenbakia, maila eta lema adieraziko dira. Kanpoko aldean berriro azalduko da lema eta maila.

## 4. EGUN, ORDU ETA TOKIA

Lan hauek, 2020ko abenduaren 17ko arratsaldeko 7ak baino lehen aurkeztuko dira Legazpiko Kultur Etxeko Harreran.

## 5. ERABIL DAITEZKEEN BALIABIDEAK

**Lapitza, lapitz margoak edo arkatz ziriak** erabili ahal izango dira, eta baita bestelako apaingarriak ere (kotoia, brilantina,...). Debekatuta dago erregela erabiltzea.

## 6. EPAIMAHAIA

Arkatza Elkarreko kideek osatuko dute.

## 7. SARIAK

**Kategoria bakoitzeko sari bat** banatuko da. **Sari banaketa abenduaren 22an**, 17:30ean egingo da Kultur Etxeko Areto Nagusian. Irabazleen lanak ikusgai egongo dira gabonetan, Kultur Etxean bertan.

## 8. OHARRAK

Epaimahaiaren erabakiak apelaezinak izango dira eta oinarri hauen osagarri gisa sortu daitezkeen beste puntu guztiei buruzko erabakia antolatzaileen eskuetan geratzen da.

Parte hartzaileek derrigor onartu beharko dituzte emandako jarraibideak.



**LEHIAKETA**

**GABON IRUDIAK**

**LEHEN HEZKUNTZAKO (LH)**

**LEGAZPIARRENTZAT**

Antolatzailea

**ARKATZA ELKARTEA**

Babeslea

**LEGAZPIKO UDALA**